



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

---

## OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2020.12.18

**Ordua:** 18:00tan

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

**Bertaratuak:**

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.

**Bertaratu ez direnak:** Inor ez.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIK:**

**1. AURREKO AKTAREN ONESPENA**

2020/11/10eko akta aho batez onartzen da.

**2. OINEZKO BIDEEN MOLDAKETAREN INGURUKO AURREKONTU ALDAKETA 8/2020.**

Idazkariak Arantzako Udaleko aurrekontuan egin beharreko aldaketaren berri ematen du, izan ere, Arantzako oinezko bideen moldaketaren inguruan diru-laguntza bat jasotzea aurreikusten da. Era berean, Arantzako Udaleko 2020 urteko Exekuzio Oinarrien 13. puntuan xedatutakoari jarraituz, zerga izaerarik ez duen diru sarrera, gastuen atalean kreditua sortzeko eta aurrekontu aldaketa gauzatzeko Osoko Bilkuraren akordioa nahikoa dela dio.

Udalbatzak hau jakinik eta aurrekontuan aldaketa egiteko premia ikusirik, aho batez onartu du:

- 1.- Sarrerengatik kredituak sortzearen bidezko aurrekontu aldaketa onartzen da.
- 2.- 9.643'66 euroko kreditua sortzen da, Arantzako Udaleko 2020ko aurrekontuen sarrera atalean "EDLP diru-laguntza" izeneko partidan.
- 3.- 9.643'66 euroko kreditu igoera bat ematen da, Arantzako Udaleko 2020ko aurrekontuen irteera atalean "1 4540 21005 Oinezko bideen moldaketa" izeneko partidan osotara 9.643'66 eurotan geldituz.

### **3. TOKIKO EKONOMIA SUSTATZEKO INBERTSIOETARAKO DIRU-LAGUNTZA KUDEAKETA.**

Idazkariak Arantzako Udalak 13/2020 Foru Legearen bidez, Tokiko Ekonomia Sustatzeko inbertsioetarako 40.000ko diru-laguntza jaso duela azaltzen du. Honen inguruan Idazkariak azaltzen du diru-laguntza horren bidez finantza daitezkeen inbertsioak zehaztuta daudela eta Udalak 2021eko irailaren 30era arte duela egokitzat jotzen dituen inbertsioak egiteko. Ikusirik inbertsioak ezin izango direla 2020 honetan inbertitu, Udaleko Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez onartzen du:

- 1.- " 1 7505003" sarreren partida zenbakian 40.000 euroko kreditua sartzea.
- 2.- 2021eko aurrekontuei begira jasotako diru sarrera hau afektatzea aipatutako urtean inbertitu ahal izateko.

### **4. TXOLBERRO BASERRIKO BIDEAREN HITZARMENAREN KUDEAKETA.**

Idazkariak 2019ko martxoaren 18an Martinez jaunari bidali zitzaion idatziaren berri ematen du. Era berean, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Araubide Juridikoaren Ataletik 2019ko abuztuaren 22an jasotako txostenaren arabera, txakurren zaintzarako establezimendu-jarduera baimentzeko bide publikoarekin lotutako zenbait alderdi errespetatu behar zituztela azaltzen da.

Osoko Bilkurak, honen jakitun eta bide publikoari dagokionez egin beharreko aldaketak kontuan hartuta, aho batez erabaki du:

- 1.- 2019ko martxoaren 18an bidalitako idatzian azaldutakoa indargabetzea.
- 2.- Hitzarmen berri bat sinatzea Martinez jaunarekin egin beharrak diren lanak adostuz.
- 3.- Bide publikoaren egoera zuzentzeko egin beharrak diren zenbait lan Martinez jaunak bere kontura egin beharko dituela ezartzea, egin beharrak diren lanak hauek izanik:
  - Bidearen kokaleku zuzena piketeekin eta hari-sarearekin seinaleztatzea.
  - Aldez aurretik Martinez jaunak bide publikoa oztopatzen zuen ataka lekuz mugitzea.

4.- Katastroan bide publikoaren egoera aldatzeak ekar ditzakeen gainkostuak Udalaren kontura izatea.

5.- Akordio hau Martinez jaunari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

## 5. INIZARTA ETA ZERRADO ARTEKO BIDEKO OBRAREN KUDEAKETA.

Idazkariak eta Alkateak Inizarta eta Zerrado artean egindako bidearen moldaketaren berri ematen dute, honako bide honen moldaketaren kostua 23.900€ (B.E.Z.a barne) izanik.

Alkateak, orain arte bertako bizilagunak bide gehienaren moldaketa eta kudeaketa kostua beraien gain hartu dutela aipatzen du, izan ere 90eko hamarkadan bertako bizilagunek bidearen moldaketaren ia kostu guztiari aurre egin zioten.

Udalbatza, honen jakitun eta planteatzen den salbuespenezko egoera berezia ikusita, aho batez erabaki du:

1.- Inizarta eta Zerrado arteko bideko obraren kostua osoki bere gain hartzea.

2.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.


## 6. ALKATEAREN EBAZPENAK


147/2020-166/2020 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.


## 7. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 21:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

**ALKATEA,**  
  
Dabid Iturria Almandoz

  
3

**IDAZKARIA,**  
  
Nagore Madariaga Iriarte

